

Hamazazpi

2017ko udazkena



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala



AITIOGIZ GAZTEEN ELKARTEA

KONTZEJUETAKO HAUTESKUNDEAK

ZIGOITIKO UDAKO ARGAZKI BILDUMA

BENGOLARRA ERAIKINAREN ERREFORMA

BERDINTASUNAREN GAINEKO II JARDUNALDIAK

BUKATZEN DA EITA, ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA, EGITEKO EPEA

ERIZAINAREN ETA MEDIKUAREN KONTSULTARA JOATEKO AURRETIKO HITZORDUA



Hemen eta orain

- 03 Erizainaren eta medikuaren kontsultara joateko **aurretiko hitzordua**. Podologia-zerbitzu berria
- 04 **Kontzejuetako hauteskundeak**
- 06 **Bengolarra** eraikinaren erreforma
- 07 bukatzen da **EITa**, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa, egiteko epea
- 08 **Berdintasunaren** gaineko II Jardunaldiak
- 09 **Aitiogiz** gazteen elkartea
- 10 Zigoitiko **udako** argazki bilduma

Kolaborazioak

- 12 **Eguneko Arretarako Landa Zentroko** berriak
- 13 Zigoitiarrak, **Isidro Saenz de Urturiren** eskutik
- 14 Liburutegitik, maitasunez. **Javier Arbulurekin**

Staff

HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2017ko udazkena
Azala: Elena Mota. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 · 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus


Koordinazioa:

Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Erredakzioa:

Idoia Perez Gallardo · Rosa Ortiz de Mendivil
Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com
Imprimaketa: www.graficasirudi.es

Ale kopurua: 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08
 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiazko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:
www.facebook.com/hamazazpialdizkaria 

Erizainaren edo medikuaren kontsultara joan beharra? Eskatu hitzordua lehenago. Ezinbestekoa da

Hemendik aurrera, erizainaren edo medikuaren kontsultara joan aurretik, hitzordua eskatu beharko da telefonoz, 945 43 00 30 zenbakira deituz (astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00ak arte), edo internet bidez, web orri honetan: www.osakidetza.euskadi.eus

Podologia-zerbitzua

Irailean jarri zen martxan podologia-zerbitzu berria. Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroko lehenengo solairuan eskaintzen da. Kontsulta bakoitzaren truke 20 € ordaindu behar dira. Hasiera batean 65 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago. Beste adin-talde batzuetako herritarren eskaerarik egongo balitz, zerbitzua zabaltzea aztertzeko aukera legoke. Informazio gehiago, Gizarte eta Kultur Zentroko telefono zenbakian: 945 46 44 00



2017ko Zergadunen egutegia

HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ETA EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA
 Borondatezko epea: 2017-09-01 _ 2017-10-31
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data: Bigarren epea (kuotaren %50a) – Urriaren hasieran

JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA
 Borondatezko epea: 2017-11-01 _ 2017-12-31
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data: Abenduaren hasieran

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA
INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK
 Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxa: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.eus

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak
Ordaintzeko lekuak: Kutxabank eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitia.eus (Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak
 Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

808 emakume eta 961 gizon bozkatzera deituak

Kontzejuetako hauteskundeak azaroan



Irudietan, Apodaka herria.

Azaroaren 26an Zigoitiko herritarrak lau urtean behin egiten diren kontzejuetarako hauteskundeetan bozkatzera deituak daude. 808 emakume eta 961 gizonen osatzen dute hauteskunde hauetarako errolda. Hala ere, beti ez dakigu %100ean organo hauetan zer erabakitzen den, zein den hauen funtzioa edota zein bere lan esparrua.

Zigoitiko kontzeju irekietan hiru gobernu-organoren bereizidun daitezke: Herritarren Batzarra (herrian erroldatuta dauden adin nagusiko bizilagun guztiak daude ordezkatuta bertan), Administrazio-batzarra eta Errejidore Presidenteak. Hauen eginbeharren artean aipatzekoak dira ondasunen eta zerbitzuen kudeaketa (hala nola, kale eta bideen garbiketa eta mantentzea, ondasun publikoen administrazioa...).

Berdintasunaren ikuspuntutik

Bozketa hauetan Zigoitiko herriek euren ordezkaririk hautatu beharko dituzte. Detale modura, azken urteetan eta ezaugarri nagusi

moduan kontzeju gehienak gizonen zuzentzen dituztela egiaztatzea daiteke. Tradizionalki, emakume zigoitiarren parte hartzea batzarretan ez da %20tik gorakoa izan eta azken hauteskundeetan %11ra jaitsi zen. Gertakari hauen aurrean, eta emakumeak esparru sozio-politikoan murgiltzeko eta hauen ordezkaritza nabarmenagoa izateko helburuarekin, Zigoitiko Udala Murgibe Enpresarekin jarri da harremanetan, problematika honen inguruan ikerketa bat egin dezan.

2016. urtean, Zigoitiak bere lehen Berdintasunerako Plana onartu zuen. Landutako diagnostikoaren arabera, administrazio-batzarretan nahiz elkarteetan emakumeen ordezkaritza edota parte hartzea eskasa zela antzemanenez, lan ildo modura, emakumeen ahalduz sozio-politikoak markatu zen. Horregatik guztiagatik, eta azaroko hauteskundeetarako alde aurretiko pauso moduan, 'esparru publikoan' emakumeak ordezkatuta ez egotearen



zergatiak, oztopoak eta motibazioak ezagutu nahi izan dira.

Ikerketan bi galdetegi zabaldu dira, bat administrazio-batzarretara zuzendua doana eta bestea udalerriko elkarteetara doakiena. Horrez gain, administrazio-batzarrek eta Berdintasun taldearekin elkarrizketa eta lan talde ezberdinak planteatu dira. Gainera, aurreikusten da ikerketa errealitateara asko hurbildu daitekeela datu estatistiko, txosten eta bestelako ikerketak bezalako bigarren mailako iturrietan esker, eta praktika on batzuen aukeraketa egingo da gerora udalerrian ezartzeko.

Otsailaren 18ko 4/2005eko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak, hirugarren artikuluan honakoa dio: 'euskal botere publikoek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte erabakitze esparru ezberdinetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatu lortzeko. Lege honi dagokionean, ordezkapen orekatutzat emango da bi sexuek gutxieneko %40aren ordezkapena dutenean'. Horregatik, hurrengo deialdietan ezin hobea litzateke portzentaje hori lortzea. Eta hori da, zehazki, udalerrian errotzea nahi dugun xedea.

Nor ari da ikerketa egiten?

Murgibe Berdintasun-aholkularitza bat da, 12 urteko ibilbidea duena. Hainbat eremutako profesionalen lan-proiektuaren gauzatzea adierazten du. Profesional horiek formazioa eta esperientzia dute Emakume eta Gizonen Berdintasunaren eremuko planifikazioan, programazioan, ikerketan, formazioan eta kudeaketa integratuan, eta Etengabeko Hobekuntzan. Beren lan-taldean hainbat diziplinatan trebatutako profesionalak daude, hala nola, psikologia, soziologia, pedagogia, hezkuntza, etab.



Bengolarra eraikinaren erreforma

Bengolarra eraikina, non gaur egun taberna-jatetxea, gaztelekua, igerilekuetako aldagelak eta erabilera publikoa duten beste gune batzuk kokatzen diren, prozesu parte hartzaile baten bitartez erreformatuko du udalak. Birmoldaketa, eraikinean topaturiko hobekuntza beharrei emandako erantzuna da, besteak beste, indarrean diren irisgarritasun eta osasun araudietara egokitzeko.

Obrek Bengolarrako eraikineko solairu guztiak irisgarri bilakatzeko helburua dute, zerbitzu guztietara irisgarritasuna bermatuz. Horrez gain, igerilekuarekin erlazionatutako instalazioak azalera nahikoaz hornitzeko asmoa dago, osasun araudia betez. Energia berriztagarriak ere sustatuko dira eraikin osoan zehar berogailua eta ur beroa jartzeko. Erreformaren beste helburuetako bat kirol jardueren antolakuntzan datza, horietako asko Bengolarrako parkean egitera bideratuz; izan ere, etorkizunean garatu beharreko kirol-ekipamendurako gune berria bertan kokatuko da, udalean idazten ari diren Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra kontuan hartuta.

Funtzionalitate eta eraginkortasun handiagoa izan dezan, hiru fase izango ditu prozesu parte hartzaileak. Lehenengo fasean lan talde bat eratu da, Zigoitiko Udaleko pertsonal tekniko eta politikoaz eta kirol eta kultur ekintzen antolakuntzan eta kudeaketan murgilduta dauden herritarrez osatua dagoena. Fase honetan, helburuak eta etorkizunera begira

eraikinak izango dituen erabilera eta zerbitzuak definitu, eta Bengolarrak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinetan inplikaturik dauden pertsonen ekarpenak jaso dira. Urria bitartean, bigarren fasea burutuko da. Bertan, eragile-dinamizatzaile bat gehituko zaio lan taldeari, lan jardunaldi baten bidez parte-hartzea gidatzeko, eta, besteak beste, gai honekin lotura duten kontzejuetako zein udalerriko elkarteetako ordezkariak hartuko dute parte bertan. Horrela, Zigoitiko esparru sozialeko agente aktiboenen iritzia jasoko da.

Azkenik, azaroan izango da hirugarren fasea, eta orduan eztabaida irekia planteatuko zaie borondatez parte hartzeko prest agertzen diren herritarrei. Jardunaldi ireki bat antolatuko da non proiektuak eskaini ditzakeen eszenatoki eta aukera ezberdinak aurkeztuko diren.

2018an martxan jarriko dira proiektuaren erredakziorako kontratazioa prozesuak, Udaleko Batzarraren eta Osoko Bilkuraren onarpena eta erreformarako finantzaketaren bilaketa.



Laster amaituko da EITa egiteko epea

50 urtetik gora dituen etxebizitza guztietarako nahitaezkoa da



Duela 3 urte t'erdia, Eusko Jaurlaritzak 2018ko ekainaren 27an jarri zuen epea EITa (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa) egiteko. Ikuskaritza derrigorrezko 'azterketa' da, aurtengo ekainaren 27a baino lehen 50 urte edo gehiago betetzen dituzten etxebizitza guztietarako. Epeak oso luzea zirudien, baina bukatzen ari da.

Eraiki zirenetik mende erdia bete duten etxebizitza guztiek EITa egin eta udaletxean aurkeztu behar dute, Euskadiko erregistro bakarrean sartzeko.

EIT-ak balio du, besteak beste, eraikinaren benetako kontserbazio-egoera ezagutzeko eta gerta daitezkeen mantenu-arazoak antzemateko. Era berean, mantentzeko jarraibideak eskaintzen ditu, eraginkortasun energetikoa bermatzen du eta eskuragarritasun-arauak betetzea errazten du. Behin eginda, eraikinak kalifikazio bat jasoko du, egin behar diren jarduerak adieraziz:

- 1. maila. Berehalakoa.** Gehienez ere 24 orduko epean esku hartzea erabaki behar da.
- 2. maila. Oso premiazkoa.** Hiru hilabete baino lehen esku hartu behar da.
- 3. maila. Premiazkoa.** Akatsak konpontzeko urtebeteko epea dago.
- 4. maila. Beharrezkoa epe ertainean.** Esku hartzeko urtebete baino gehiago itxaron daiteke.
- 5. maila. Mantentze-lanak.** Mantentze lan egokia besterik ez da behar.

Epeak

Eraikinen ikuskaritza teknika aurkezteko epea 2018ko ekainaren 27a artekoa da, 2017ko ekainaren 27a baino lehen 50 urte betetzen dituzten eraikin guztientzat, eta data horretatik aurrera, urtebetekoa izango da, 50 urte betetzen dituzten unetik zenbatzen hasita. Komeni da gogoratzea EITa ezegitea arau-hauste urbanistikoa dela. Azkenik, ez dago EITak egiteko profesional edo enpresen erregistro berezirik. Beraz, norberak hauta dezake gehien gustatzen zaion arkitekto edo aparejadorea.

Informazio gehiago:
www.euskoregite.eus

Azaroan izango dira Berdintasunaren gaineko II Jardunaldiak, herritar guztientzako

Emakumeen parte-hartze soziopolitikoaz eztabaidan



Bueltan dira Zigoitiko Berdintasun jardunaldiak. Bigarren urtez jarraian, berdintasunaren aldarria lehen planora eraman nahi izan dute bertako emakumeek. Hori dela eta, urria eta azaroa bitartean berdintasuna lantzeko jardunaldiak egingo dira, non emakumeen espazioa eta eskubideak aldarrikatzea eta ikusaraztea izango den helburu nagusia.

Oraingoa, emakumeen parte-hartze soziopolitikoaz izango da jardunaldietan jorratuko den gaia. Ikuspuntu globaletik helduko zaio gaiari eta Zigoitiko emakumeen egungo eta azken urteetako egoera aztertuko da, bai esparru politikoan, bai asoziatiboan. Gaiaren aukeraketa ez da nolana hokioa izan; programaren bizkarrezur bilakatu da, besteak beste, datari dagokionez, jardunaldiak kontzejuetako hauteskundeekin batera egingo direlako. Urtetan, emakumeen partaidetza oso baxua izan da. Horregatik, jardunaldien baitan, Zigoitiko emakumeek administrazio organoetan duten parte-hartzea zenbatekoa eta nolakoa den aztertzen duen ikerketa baten emaitzak aurkeztuko dira, eta gaiaren inguruan aritzeko asanblada ireki bat ere deituko da, non Arabako Kontzeju ezberdinetako emakumeak euren esperientziak arituko diren.

Antolatutako ekintzen artean, Arabako emakumeen ahalduzko eskolaren, Laia Eskolaren, aurkezpena aipatzekoa da. Zinhezba-k bideratutako zineforuma egingo da eta Emakunderen Foroaren baitan, eta Gaztelekuko gazteek eginiko laburmetraia ere proiektatuko da. Giro informala gozatu, 'trikiptoteo feminista' bat ere egingo da.

Gorbeialdeko berdintasun teknikaria den

Araitz Palaciosak aditzera eman duenez, 'asko aurreratu bada ere, berdintasun osoa lortzeko oso urrun gaude. Horren adibide dira Zigoitia osatzen duten administrazio-batzarrak: 16 dira guztira, eta horietatik soilik 3 dira emakumeek zuzendutakoak. Eta badira 3 batzar, non emakumeek ez duten inoiz parte-hartu'. Horregatik eta gizarte guztia barnebiltzen duen arazoa delako, edozein adinetako emakume zein gizonei zuzendua izango da Berdintasun Jardunaldien bigarren edizio hau.

Gainera, azaroaren 25a, indarkeria Martxistaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, Gorbeialdeko Kuadrilak hainbat ekintza antolatuko ditu. Batetik, Zigoitiko Zentro Soziokulturelean, autodefentsa feminista tailerra (azaroaren 11n), monologia (23an) eta 'La Patota' filmarekin zine-foruma (abenduaren 1ean) egongo dira. Bestetik Zuian jardunaldi bat (azaroaren 11n) eta hitzaldi bat (azaroaren 16an) izango dira. Gorbeialdeko herritarrei zuzenduriko ekintzak dira denak. Doako haurtzaindegi eta garraio zerbitzuak egongo dira, zeintzuetarako hiru egun lehenago eman behar den izena.

Informazio gehiagorako: **T_ 945 46 40 41**

Emaila: **berdintasuna@gorbeialdea.eus**

AITIOGIZ, Zigoitiko gazteek herritik eta herriarentzat ekintzak egiteko

Gazteria antolatu eta parte hartzailea



Hasiera batean, izenak zaila dirudi. Baina Zigoitia alderantziz dela azaltzean, ulergarriagoa egiten zaigu. AITIOGIZ urte hasieran sorturiko gazte elkarte da. Zigoitiko herri ezberdinetako 30 gazte inguruk osatzen dute eta aisialdirako eta biltzeko espazio bat izatea bermatzeko asmoz ari dira lanean. Elkarte osatu bezain laster, udalak espazio bat utzi zien, Ondategiko sarreran, udaletxearen ondoan dagoena, bertan gazteek eurentzako eta gainontzeko herritarrentzako ekintzak antola zituzten. Orain arte, lokalean antolatutako ekintzarik arrakastatsuena, noizbehinka antolatu izan duten pintxo potea izan da. Bertan zigoitiar ugari batzea lortu dute! Egoitzatik kanpo ere ideiak proposatu eta ekimen ezberdinetan parte hartzen dute, hala nola, Olentzero eguneko ospakizunetan, gabonetako euskara lehiaketan, Santa Ageda egunean... Dena ez denez jai girora mugatzen, behin baino gehiagotan herriko egin beharretan lagundu eta parte hartu dute; horren adibide, ingurumenaren zainketa herri ekimenaren baitan, Gopegitik pasatzen den Zubialde errekarren garbiketa burutu zuteneko aldia.

Antolaketa ereduari dagokionez, modu asanblearioan hartzen dituzte erabakiak, zeintzuetara gazte guztiak dauden deituak. Bilkura hauetan euren proposamenak adierazi eta irtenbidea ematen diete, ekintzak programatu eta antolatzen dituzte, eta beste ideia batzuk burutzea ere erabakitzen dute.

Esate baterako, Eguzki Jaian antolatzen duten txosnaren kudeaketa, edota Zigoitia Euskaraz ospakizunerako prestaketa eta dekorazioa.

Elkartean egoteko eta bertako kide izateko aukera luzatzen diote AITIOGIZetik parte hartu nahi duen orori. Izan ere, elkarte ondo dakite behin 15 urteko adina pasata, zaila dela herrietan leku bat topatzea non lekuz kanpo ez zaren sentitzen. Ludoteka aspaldi geratu zitzaizen txiki eta Zigoitiko Gazte Lekuan 14 urtera artekoentzako baino ez dago lekua. Horregatik, elkartearen izenean, Muruako herritarra den Olatz Puyok honakoa azpimarratu nahi izan du: "harreman ona dugula esango nuke. Egia esan, guregan konfiantza dutela erakutsi digute eta, horrek ere gu eroso sentiarazten gaituela uste dut".

Egun, elkartearen dauden gazte gehienak 15 urtetik 25 urte bitarteko tartean kokatzen dira. Gazteak izanik euren espazioa aldarrikatzen dute, baina ez dira gazteriari soilik mugatu nahi. Hori dela eta, adina edozein delarik, herritarrak egoitzara hurbiltzera gonbidatzen dituzte, ezagutzera eta konpainia onean egotera anima daitezten.

Info gehiagorako:

Twitter: Zigoitiako Asanblada @zigoitikojaia

Facebook: Zigoitiako Gazte Asanblada



Argazkiak: Panta Rhei (udalekuak), Maite Ortiz de Zarate (Zaldi Azoka), Eneko Llanos (triatloia), Elena Mota eta Aitor Lizarralde (Zigoitia Euskaraz), Imanolen omenaldiaren antolaketa (Arkaitz Iduia e Iñaki Garcia), Elena Mota (Dantzari Eguna).

Zigoitiko udako argazki bilduma

Zer ondo pasa dugun!!!

Eguzki Jaia, udalekuak (udalak, Panta Rhei taldeak eta Musika Eskolak batera antolatutakoak), Zigoitiko I Dantzari Eguna, Imanolen omenaldia, Zaldi Eguna, Zigoitia Euskaraz... Amaigabeko egun eta gauak izan

dira, adiskide eta janari goxoak partekatuz, jakina! Uda joan da jada, baina oroimen ahaztezinak geratzen dira. Ez dira guztiak hemen sartzen; beraz, hona hemen hautaketa txiki bat.



Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroko, EALZko, informazioa

Biodantza heldu da Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentrorra

Asteartero, mugikortasuna eta bizitasuna hobetzeko eta pizteko



Duela hilabete batzuetatik hona, EALZko adinekoak Biodantza egiten ari dira. Asteazkenero, erabiltzaileak eta zaintzaileak Aurkene Garcia de Albenizen, Zigoitiko erizain eta Biodantza-hezitzailearen bisita jasotzen dute, Zentro Soziokulturaleko gimnasioan jarduera honekin gozatzeko. Saio horiek, behin EALZko taldeari egokituta, proposamen berri bat dira, parte-hartzea bultzatzen dutenak, adinekoak elkarrekin egoteko, giro lasaian, dantza eta mugimenduaren bidez taldeko loturak indartzeko. Klase bakoitzaren ondoren zaintzaileekin partekatzen duten sententzio atsegina eta ongizatekoak, sortutako interes handiaren eta EALZko programazioan egoki txertatu izanaren seinale dira.

Mugimenduaren bizipoza

Biodantza integrazio eta giza garapen sistema bat da; musikak, mugimenduak eta taldeko elkarrekintzak bultzatutako bizipenetan oinarritutako hazkunde pertsonalaren sistema, hain zuzen ere. Rolando Toro psikologo eta antropologo txiletarrak sortu zuen 60. hamarkadan eta gaur egun munduko 35 herrialdetan praktikatzen da. Taldean garatzen

da eta, besteak beste, hurrengo baliabideak erabiltzen ditu: musika, mugimendua eta pertsonen arteko harremanak. Ariketa, joko eta dantzen bidez, pertsona bakoitza bere buruarekin eta taldearekin aurkitzen da. Edozeinek praktika dezake eta ez da beharrezkoa alde aurretik ezagutzeari. Adineko pertsonen kasuan, helburua da taldeari balioa ematea eta euren gaitasunak berreskuratzen laguntzea, gizartearen aurrean pertsona duin eta osasuntsu gisa ager daitezen. Zahartzea bizimoduaren adierazpena da, munduaren eta gainontzekoen aurreko jarreraren adierazpena. Oso erlaxatuta dago erantzun emozionalen patroiekin. Eta baita ustekabeko ohiturekin ere, mugimendu patroien aldaketaren bidez identifikatu eta aldatu daitezkeenekin.

EALZan Biodantza praktikatzeak, erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzen du; mugikortasuna, malgutasuna eta bizitasuna indartzean, osasun fisikoa ere gogortzen dute. Aldi berean, autoestimua handitzen da, bizipoza eta motibazio pertsonalak berreskuratuz, eta pertsonen arteko harremanak hobetzen dira, eguneroko komunikazioan oinarrituko trebetasunak garatuz.

Isidro Saenz de Urturiren eskutik

Zigoitiko kintoen neurketa

Urtarrilean kintoen neurketa egin ohi zen, beti igande batean. Egun batzuk lehenago, Nartziso aguazila etxez etxe joaten zen, kintoetan zeintzuk sartuko ziren jakinarazteko eta eguna eta orduajarriratuaren eskutitza emateko, gazteek euren burua aurkeztu zezaten, garai hartan Gopegin zegoen udaletxean. Lehenago, 1928ra arte, Santa Luzia basilizaren ondoan zegoen. Adierazitako egunean, kintoak Gartziaien tabernan elkartzen ziren eta, pote bat hartu ondoren, elkarrekin ateratzen ziren, udaletxerantz. Euren zain, udalbatza egoten zen, osorik: alkatea eta zinegotziak, idazkariarekin, medikuarekin eta aguazilarekin. Idazkariak zerrenda pasatzen zuen, gazteak neurtzen zituzten, medikuak aztertzen zituen eta soldaduskara ez joateko arrazoiren bat bazegoen, esan egiten zuen. Baserri eremuetan, udalak gailetak, ardo goxoa eta olibak oparitzen zizkien.

Neurketa amaituta, kintoak berriro tabernara bueltatzen ziren, kantuan. Bazkaria egin ondoren, bazkalondoa etortzen zen, koñak, anis, puru eta guzti. Guztiek erre behar zuten egun horretan eta bati baino gehiagori kalte egiten zion. Bazkalostera gonbidatzen zituzten soldaduska egiten ari zirenak, ateratzeko baimena baldin bazuten. Bazkaria kantaldi desafinatu samarrarekin bukatzen zen, eta



gero dantzara joaten ziren. Dantzaldian beraiek ziren protagonistak, eta parodiak egiten zituzten. Dantza bukatu ondoren parrandarekin jarraitzen zuten, bakoitzak ahal zuen moduan, etxera joan arte. Batek baino gehiagok tabernako lastategian egiten zuen lo, bere herrira iritsi ezinik.



ISIDRO SAENZ DE URTURI

‘Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek’.

Isidro Saenz de Urturi diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea du. Udalerrian egin duen lanari esker, hemen Zigoitiarrak saila sinatzen du, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeak, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.



'Bakarrik 5', Zigoitiko liburutegiko neska-mutilen komiki bat


'Geldiezinak gara, sekulakoak gara'

O, neska hauek GELDIEZINAK dira! O, mutil hauek SEKULAKOAK dira! Gazzotti & Vehlmann-ek nekatuak dirudite....? E, Gazzotti

& Vehlmann!, zergatik dirudizue nekatuak? Ez dakizue, ala, zerbait esan behar denean nekerako denborarik ez dagoela? Oraindik ere

ez da irten BAKARRIK 5? Tira ba! Guk egingo dugu orduan (gutxienez, zati bat). Gu ez gaude nekatuta. Ibone, Unax, Markel, Sarai, Jon, Irati, Peio, Martxel, Eihar, Igor, Iñaki, Miriam, Garazi, Aitor, Shukare. Ez gaude nekatuta.

Udaberriko lehen eguzkia gaur ikusten dugula? Ostiral arratsaldean? Aste gogorra bizkar gainean? BERDIN ZAIGU! Geldiezinak gara, sekulakoak gara. E, begira! Hemen hasten da BAKARRIK 5.



www.zigoitia.eus udal webgunean

Gure herrietako informazioa, Abadelaeta elkartearen eskutik

Zigoitiko Udalaren eta Abadelaeta Elkarte Etnografikoaren arteko akordio bati esker, gure udalerriko historia eta gure herrietakoa gehiago ezagutzeko aukera dugu. Abadelaetak informazioa pilatu ondoren, elkarteko Xabier Galarraga kideak 'Herriak' sailean agertzen

diren testuak gainbegiratu ditu eta argazkiak kokatu ditu. Horrela, euren lana guztion kultur ondarearen parte da jada, eta interesa duen edonork eskura dezake hurrengo esteka honetan: <http://www.zigoitia.eus/es/municipio/nuestros-pueblos>

Autobusen ordutegiak

1

ZIGOITIA - VITORIA - GASTEIZ

ZESTAFE	OKOIZTA/ACOSTA	ETXAGUEN	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURIJAGA	BERRIKANO	APODAKA	ETXABARRI IBIÑA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	GASTEIZ/VITORIA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>													
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	14:30	14:33	14:35	*	14:38	14:41	*	14:44	14:48	14:55	14:57	15:06
*	*	16:00	16:03	16:05	*	16:08	16:11	*	16:14	16:18	16:25	16:27	16:36
*	*	18:40	18:43	18:45	*	18:48	18:51	*	18:54	18:58	19:05	19:07	19:16
*	*	21:00	21:03	21:05	*	21:08	21:11	*	21:14	21:18	21:25	21:27	21:36
						22:05					22:14	22:16	22:25
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>													
*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

1

VITORIA - GASTEIZ - ZIGOITIA

GASTEIZ/VITORIA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	ETXABARRI IBIÑA	APODAKA	BERRIKANO	BURIJAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXAGUEN	OKOIZTA/ACOSTA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>													
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*
13:45	13:54	13:56	*	*	*	*	14:13	*	14:16	14:18	14:21	*	*
15:15	15:24	15:26	*	*	*	*	15:43	*	15:46	15:48	15:51	*	*
18:00	18:09	18:11	*	*	*	*	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*
20:20	20:29	20:31	*	*	*	*	20:48	*	20:51	20:53	20:56	*	*
21:40	21:49	*					22:00		*	*			
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>													
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*
12:00	12:09	12:11	*	*	*	*	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*